



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga 200

Arriaga Antzokiak Juan Crisóstomo de Arriaga eta bere legatua gogora ekarriko ditu haren heriotzaren 200. urteurrenean

- 2026ko urtarrilaren 17an 200 urte beteko dira Bilboko konpositore bikaina hil zela eta Arriaga Antzokiak La Ritirata orkestraren kontzertu berezi bat eskainiko du, Josetxu Obregónen zuzendaritzapean.
- Urtarrilaren 10ean eta 24an, eta otsailaren 1ean, Arriaga Antzokiari eta Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioari esker, publikoak modu berezi batean bisitatu ahalko du antzokia, Koldo Olabarri eta Ainhoa Etxebarria antzezleen eskutik, eta Arriagaren musika zuzenean joko duten kontserbatorioko 38 ikasle gazteen eskutik.

Bilbo, 2025eko azaroaren 17a.- Arriaga Antzokiak Juan Crisóstomo de Arriaga konpositoreari zor dio izena eta, 2026ko urtarrilean, haren heriotzaren 200. urteurrena ospatuko du. Somera kalean jaiotako konpositore bilbotarra Parisen hil zen, 19 urte besterik ez zituela, 1826ko urtarrilaren 17an. Iturri batzuen arabera, bezperan hil zen, urtarrilaren 16an. Nolanahi ere, Arriaga Antzokiak urteurrena baliatuko du egilea gogora ekartzeko, gaztetan hil bazen ere, musikaren munduan bere arrastoa uztea lortu baitzuen; izan ere, espezialistek Mozartekin berarekin alderatu zuten.

Egitarauak **Arriaga 200** du izena, eta ondarea, antzerkia eta musika uztartzen ditu. Helburua Juan Crisóstomo de Arriagaren irudia eta legatua gaur egungo publikoari hurbiltzea da, ikuspegi bizi eta parte-hartzaile batetik, eta, horretarako, bi jarduera antolatu dira. Ekitaldi nagusia **La Ritirata** orkestraren kontzertu bat da —**Josetxu Obregón** bilbotar musikariak zuzendutakoa—, 2026ko urtarrilaren 17an, larunbatean, egingo dena, Arriagaren heriotzaren 200. urteurrenarekin bat etorritz. Horrez gain, antzerki-ibilbide batzuk diseinatu dira Arriagarekin eta bere musikarekin: Arriaga Antzokiak antolatu ditu, **Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioarekin** elkarlanean, eta **Koldo Olabarri eta Ainhoa Etxebarria** aktoreek parte hartuko dute ibilbide horietan. Urtarrilaren 10ean eta 24an, eta otsailaren 1ean izango dira, goizez, eta egunero hiru saio eskainiko dira. Kontzerturako sarrerak salgai daude dagoeneko, 26 eta 52 euro bitarteko prezioan. Antzokian barrena egingo diren ibilbideetarako sarrerak, aldiz, bihartik aurrera (azaroak 18, asteartea) erosi ahal izango dira, salmentarako ohiko bideetan. Sarrerak 15 euroan salduko dira (beherapenekin).

La Ritirata orkestrak **Arriaga y el eco de su tiempo** izenburua jarri dio urtarrilaren 17an egingo den kontzertuari. Gau-emanaldiaren egitarauan, Arriagak sortutako erlijiozko ahots-musikako lanik ezezagunenetako batzuk daude, horien artean “Stabat Mater”, egilea Pariseko École Royale de Musique et Declamation delakoan ikasten zebilela hiriburu horretan estreinatutakoa, Luigi Cherubini ikastegiko orduko zuzendariak maisulantzat jo zuena, eta “O Salutaris Hostia”, bi tenorek, baxu batek eta orkestrak interpretatzeko motet-a. Azken lan horretan arituko den ahots- eta instrumentu-talde berak interpretatuko du egitarauaren barruan eskainiko den izen bereko Cherubiniren lana, Arriagak sortutakoaren ostekoa dena. Kontzertua osatzeko, Luigi Boccherini musikagile italiarraren Op. 12 laneko sei sinfonietatik bi entzuteko aukera izango dugu. 1776. urtean argitaratu baziren ere, konpositoreak 1771n sortu zituen, Haydnen edo Mozarten antzeko estilo klasikoan, Luis Borboikoa infantearen zerbitzura zegoela. Maila handiko hitzordu musikala prestatu dugu, beraz, ageriko arrazoiak direla eta gure egilerik maiteena den hau gogoratzeko. Josetxu Obregón arduratuko da musika-zuzendaritzaz. Interpretea euskal musikagilearen lanean espezializatuta dago, “Juan Crisóstomo de Arriaga. The complete string quartets on period instruments” CDan agerian geratu zenez

Sorpresak dituzten ibilbideak

Arriaga Antzokiak Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioaren lankidetzarekin antolatu dituen, eta Arriaga eta bere musika duten antzerki-ibilbideei esker, publikoak antzokia barrutik ezagutu ahal izango du, baita normalean bisitatzen ez diren espazio enblematikoak ere, hala nola agertokia edo kamerinoak. Bisitaren ezaugarriak direla eta, taldeak murriztuak izango dira, gehienez 35 lagunekoak, eta hiru txanda eskainiko dira urtarrilaren 10ean eta 24an, eta otsailaren 1ean: 10:00etan, 11:30ean eta 13:00etan.

Ibilbidean Koldo Olabbarri eta Ainhoa Etxebarria aktoreak arituko dira gidari eta antzezle. Elkarrekin hezurmamituko dituzte, bai iraganaren eta orainaren arteko elkarriketa, bai eraikinaren historiaren eta antzerkiari izena ematen dion konpositorearen inspirazioaren artekoa. Hori gutxi balitz, ibilbidean zehar sorpresak egongo dira. Bertaratzen direnek geldialdiak egingo dituzte hainbat puntutan eta, horietan, Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioko ikasleek osatutako ganbera musikako taldeen emanaldiez gozatu ahal izango dute. Kontserbatorioko Gradu Profesionaleko 4. eta 6. kurtsoko 38 ikaslek parte hartuko dute —15 eta 20 urte artekoek—, eta haiek joko dute zuzenean, hainbat taldetan eta antzokiko hainbat eremutan zehar banatuta, omenaldia jasoko duen egilearen, JC Arriagaren, musika. Baliteke ere, agian, antzokian harekin gurutzatzea... Batek daki! Arriagaren piezez gain, instrumentista gazteek bere garaikideak ziren konpositoreen konposizioen bat ere joko dute, hala nola Mozart eta Beethovenenak, antzokiko espazioetan zehar bisitarien lagunduko dien soinu-giro limurtzaile bat sortuz.



ARRIAGA 200

Antzerki-ibilbide bat Arriagarekin eta bere musikarekin

Urtarrilaren 10 eta 24a, otsailaren 1a
10:00 / 11:30 / 13:00

Musika: **Arriaga, Mozart, Beethoven**

Interpretatzaileak: **Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioko ganbera musikako taldeak** (38 ikasle)

Gizonezko antzezlea: **Koldo Olabarri**

Emakumezko antzezlea: **Ainhoa Etxebarria**

Honako hauen arteko elkarlanarekin: **Arriaga Antzokia, Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioa**

La Ritirataren kontzertua. Arriaga y el eco de su tiempo

Urtarrilaren 17a
19:00

Musika-zuzendaritza: **Josetxu Obregón.**

Orkestra: **La Ritirata.**

Bakarlariak:

Tenorra: **Juan Antonio Sanabria.**

Tenorra: **Diego Blázquez.**

Baritonoa: **Ferran Albrich.**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus